

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa. Arabako zerga araudira egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketak**

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 23 quater, 26., 33. eta 34 bis artikuluek xedatzen dute, batetik, zerga itunduak direla energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga, zerga bereziak eta finantza transakzioen gaineko zerga, eta, bestetik, Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkiela.

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuak, hainbat neurri hartzen eta luzatzen dituenak Ukrainako gerrak dituen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uharteko suspertze ekonomiko eta sozialerako, aldatu egiten ditu energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta elektrizitatearen gaineko zerga berezia eta, beraz, arlo horietan Arabako araudia egokitu behar da.

Bestalde, enpleguko pentsio planak sustatzeko erregulazioari buruzko ekainaren 30eko 12/2022 Legeak, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina, azken xedapenetatik seigarrenean, aldaketak sartzen ditu finantza transakzioen gaineko zergaren araudian eta, hortaz, Arabako zerga araudia egokitu behar da aldaketa horietara.

Aurrekoarekin bat etorriz, xedapen honen xedea da Arabako ordenamendu juridikora egokitzea ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuan eta ekainaren 30eko 12/2022 Legean hartutako zerga neurriak, aipatutako aldaketak txertatuz, Ekonomia Itunaren 23 quater, 26., 33. eta 34 bis artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburtua.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, eta Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak foru aldundiari ematen dizkieten eskumenak baliatuz, presazko arrazoiak direla eta, hau

#### XEDATZEN DUT

#### **Lehenengo artikulua. 24/2014 Foru Araua, uztailaren 9koa, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergari buruzkoa**

Aldaketa hauek egiten dira Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauan, 2022ko ekainaren 27tik aurrerako ondorioekin:

6. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

#### **“6. artikulua. Zerga oinarria**

1. Zerga-aldian instalazio bakoitzean zentraletako barretan neurtutako energia elektrikoa ekoiztegitik edo sistema elektrikorik sartzegatik zergadunak jaso beharreko zenbateko osoa izango da zergaren oinarria.

Ondorio hauetarako, zenbateko osoa kalkulatzeko, abenduaren 26ko 24/2013 Legean, sektore elektrikoarenean, xedatutakotik deribatutako erregimen ekonomiko guztietan zergaldian izandako ordainsariak hartuko dira aintzat, baita uharteetako lurraldeetan eta penintsulaz kanpoko lurraldeetan energia elektrikoa sortzeko eta sistema elektrikorako sartzeko jardueren kasurako aurreikusitako berariazko erregimen ekonomikokoak ere.

Lotutako pertsonen edo erakundearen artean eragiketarako egiten direnean, sozietateen gaineko zergaren araudian xedatutakoaren arabera, ordainsaria ez da izango merkatuko balioa baino txikiagoa. Merkatuko balioetatik hartuko da pertsona edo erakunde independenteek lehia askearen printzipioa errespetatzen duten baldintzetan adostutakoa. Ondorio horietarako, merkatuko balioa zehazteko, sozietateen gaineko zergaren araudian jasotako metodoetatik edozein aplikatuko da."

**Bigarren artikulua. 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 1ekoa, zeinaren bidez onesten baitira energiaren arloko premiazko neurriak eta bestelako zerga neurriak**

Aldaketa hauek sartzen dira otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan, zeinaren bidez onesten baitira energiaren arloko premiazko neurriak eta bestelako zerga neurriak, 2022ko uztailaren 1etik aurrerako eraginarekin:

Bat. 1. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

**"1. artikulua. Zerga neurriak luzatzea**

1. 2022ko abenduaren 31ra arte luzatzea azaroaren 2ko 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritako elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren ehuneko 0,5eko zerga tasaren aplikazioa (Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu horren bidez, Arabako zerga araudira egokitzen dira ez egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan egindako aldaketak, eta premiazko neurriak hartzen dira energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan eta elektrizitatearen gaineko zergan).

2. 2022ko abenduaren 31ra arte luzatzen da balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 4ko zerga tasaren aplikazioa Sendagaien Prezioen Ministerio arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Akordioan aipatzen diren erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen Batasunaren barruko entreei, inportazioei eta erosketei. Zerga tasa horren aplikazioa jasota dago COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko 2021erako zerga neurriak onesten dituen abenduaren 1eko 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 24. artikuluan."

Bi. 2. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

**"2. artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren 2022ko ekitaldiko zerga oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoa zehaztea**

2022ko ekitaldian hau izango da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria: instalazio bakoitzean zergaldian ekoitzi eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoagatik (zentral barretan neurtuta) zergadunak jaso behar duen guztirako zenbatekoa, ekitaldian zehar sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduta.

2022ko lau hiruhilekoei dagozkien ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa (zentral barretan neurtuta eta aldi horretan sistema elektrikoan txertatuta) zero eurokoa izango da."

**Hirugarren artikulua. Energia elektrikoaren Batasunaren barruko entreei, inportazioei eta erosketa jakin batzuei aplikatzeko zaien balio erantsiaren gaineko zergaren zerga tasa**

2022ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra arteko ondorioekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie honako hauei egindako energia elektrikoaren Batasunaren barruko entreei, inportazioei eta erosketei:

a) Potentzia kontratatua (potentzia termino finkoa) 10 kW edo gutxiago duten elektrizitate hornikuntzako kontratuen titularrak, hornikuntzaren tentsio maila eta kontratazio modalitatea gorabehera, fakturazio aldiaren azken egunaren aurreko azken hilabete naturaleko eguneroko merkatuko batez besteko prezio aritmetikoa MWh-ko 45 euro baino handiagoa izan bada.

b) Elektrizitateko gizarte bonuaren onuradun izan eta kaltebera larritzat edo gizartetik baztertzeko arriskuan dagoen kaltebera larritzat aitortuta dauden elektrizitate hornikuntzako kontratuen titularrak, bat etorritz urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan, zeinaren bidez arautzen baitira kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte bonua eta etxean energia elektrikoa kontsumitzen dutenak babesteko beste neurri batzuk, ezarritakoarekin.

**Laugarren artikulua. 4/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 15ekoa, Finantza Transakzioen gaineko Zerga onesten duena**

Aldaketa batzuk egiten dira Finantza Transakzioen gaineko Zerga onesten duen martxoaren 15eko 4/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan, 2022ko uztailaren 2tik aurrerako eraginarekin. Hona hemen:

Bat. 5. artikulua 1. apartatuari m) letra gehitu zaio. Hauxe da edukia:

“m) Enpleguko pentsio funtsek eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateek edo irabazteko xederik gabeko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek egindako eskuraketak.”

Bi. 5. artikulua 2. apartatuari i) letra gehitu zaio. Hauxe da edukia:

“i) 1. apartatuaren m) letran jasotako salbuespenari dagokionez, enpleguko pentsio funtsaren, gizarte aurreikuspeneko mutualitatearen edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundearen identifikazioa.”

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, beronen artikuluetan xedatutakoa gorabehera.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 2a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**